



Usurbilgo Udala



**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2015EKO OTSAILAREN 11N
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Mertxe Aizpurua Arzallus.

Zinegotziak: Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

Idazkaria: Nagore Sarasola Otermin.

Ezin-etorria adierazi dute: Jose Maria Rivadeneyra Siciliak eta Josu Portu Alzagak.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2015/01/27KO OHIKO BILKURA.

Batzarkideek, 2015eko urtarrilaren 27ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- BESTSELLER RETAIL, S.L. ENPRESAK, URBIL MERKATAL ZENTROKO B-10/B-11 LOKALETAN EGOKITUTAKO DENDARI IREKITZEKO BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.07/2013-0087

Alkatetzak 2014ko urriaren 10ean, 2014/0940 dekretuaren bidez, BESTSELLER RETAIL, S.L. enpresari, Urbil Merkatal Zentroko B-10 eta B-11 lokalak egokitzeko obra txikiak egiteko udal baimena ematea erabaki zuen.

Orain berriz, BESTSELLER RETAIL, S.L. enpresak, Urbil Merkatal Zentroko B-10/B-11 lokaletan egokitutako dendaren irekiera baimena eskatu du.

Udal aparejadoreak, Felix Aizpurua Arzallus jaunak, dagokion ikuskapen-bisitaldia egin ostean, ondoko txostena erran du:

**ESKAERA: OBRA AMAIERAREN IKUSKAPENA
ESKATZAILEA: BESTSELLER RETAIL, S.L.
KOKAPENA: URBIL B-10, 11 (TXIKIERDI 7)
ESP. ZENB.: HZ.07/2014-396**

AURREKARIAK

2014-10-10ean Alkateak baimena erran zuen Urbil merkatalguneko B-10,11 lokalak egokitzeko, obra txikiak egiteko, 2946 irteera zenbakia duen dekretuaren bidez.

2014-11-10ean Urbil merkatalguneko B-10,11 egindako obren amaiera ziurtagiria aurkeztu du Bestserller Retail S.L.-ek



Usurbilgo Udala



2014-11-21ean alkateak jakinerazpena bidaltzen dio, dokumentazio osagarria eskatuz.

TXOSTENA

Obrako zuzendaria den Miguel Argüelles Salas ingeniari teknikoak aurkezten du eskatutako dokumentazio osagarria, Bestseller Retail S.L.-ren izenean.

Bestseller Retail S.L. Urbil A-108 eremuan koka zen da, Tertiario Merkataritza erabilera onartzen delarik.

Jarduerari ezarritako neurri zuzentzaileak eta baldintzak osatu dituzenez, eta 2946 irteera zenbakia duen dekretuan eskatutakoak aurkeztu dituzenez oniritzia ematen da jarduerari.

2015eko urtarrilaren 23an
Udal aparejadorea
Felix Aizpurua Arzallus

Eskaria kontutan hartuz eta udal aparejadorearen txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez hartu du erabakia:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: BESTSELLER RETAIL, S.L. enpresak, Urbil Merkatal Zentroko B-10/B-11 lokaletan egokitutako dendari irekitzeko baimena ematea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaitzari ematea.

3.- DISMODA, COMERCIO Y DISTRIBUCIÓN S.L. ENPRESARI, URBIL MERKATAL ZENTROKO B-38 LOKALEAN BERRIKUNTZA OBRAK EGITEKO ETA PARFOIS ARROPA DENDA JARRI AHAL IZATEKO OBRETAKO UDAL BAIMENA EMATEA.

DISMODA, COMERCIO Y DISTRIBUCION S.L. enpresak aurkeztutako eskaera aztertu dut. Bertan, Urbil Merkatal Zentroko B-38 lokalean berrikuntza obrak egiteko eta PARFOIS arropa denda jarri ahal izateko udal baimena eskatzen du.

Udal aparejadoreak aurkeztutako proiektua eta dokumentazioa aztertu ostean, obrak baimentzeko ALDEKO txostena eman du, bete beharreko baldintzak zehaztuz.

Eskaria kontutan hartuz eta udal aparejadorearen txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: DISMODA, COMERCIO Y DISTRIBUCION S.L. enpresari, Urbil Merkatal Zentroko B-38 lokalean berrikuntza obrak egiteko eta PARFOIS arropa denda jarri ahal izateko obretako udal baimena ematea.



Usurbilgo Udala



BIGARRENA: Martxan jarri nahi den jarduerak udal aparejadoreak ezarritako neurri zuzentzaileak beteko ditu:

ARAUTEGI OROKORRA

- Eskudun diren erakunde teknikoak ezarritako baldintzak eta erabilera orokorreko berariazko arauak beteko dira, bereziki hauek:
 - Udal ordenantzak eta hirigintza arauak.
 - Laneko Segurtasun eta Higieniko Ordenantza Orokorra.
 - Behe Tentsioaren Elektrotekniko Erregelamendua.
 - Eraikinak Suteen kontrako Babesteko Baldintzei buruzko CTE-DB-SI, CTE-DB-SU, CTE-DB-SH, CTE-DB-HR, CTE-DB-HE eta Kode Teknikoko gainontzeko Eraikuntzako Oinarrizko Arauak.

ZARATAK ETA BIBRAZIOAK

- Inguruko etxebizitzetan ez da gaindituko:
 - Goizeko 8etatik gaueko 10ak arte: 40dB(A) 60 segundu jarraiko hots maila baliokidea (leq.60-s) neurtuta, eta 45 dB(A) gehieneko hots maila (Lmax) neurtuta.
 - Gaueko 10etatik goizeko 8ak arte: 30dB(A), 60 segundu jarraiko hots maila baliokidea (leq.60-s) neurtuta, eta 35 dB(A) gehieneko hots maila (Lmax) neurtuta.
 - Inguruko lokaletan 60 dB(A) ez da gaindituko.

Dena dela, gai horri buruzko udal arautegirik balego, hori ere bete egin beharko da.

- Inguruko lokalei bibraziorik ez transmititzeko, makinen ainguraketa bibrazioen aurkako elementu bidez egingo da.

AIREZTAPENA

- Inguruko lokalei eragozpenik sortu gabe, gauzatuko da lokalen aireztapena.

UREN KUTXADURA EKIDITEKO HARTU BEHAR DIREN NEURRIAK

- Saneamendura isuriko diren likidoak komunekoak soilik izango dira, indarrean dauden udal ordenantzak betetzen direlarik, edo, derrigorrezkoa balitz Ur Publikoen Jabegoko Ordenantzen baldintzak eta bat etortzen den arautegia.

HONDAKIN SOLIDOAK



Usurbilgo Udala



- Hiri hondakin solidoak indarrean dauden udal ordenantzen arabera bilduko dira, egungo arautegi guztiak betetzen direlarik. Hondakinak erretzea debekatuta dago.
- Inerteak bezala sailkatutako hondakinak 1994/423 dekretuaren arabera kudeatuko dira, baimendutako zabortegira botatzea onartzen delarik.

SUTE AURKAKO NEURRIAK

- Gutxienez hurrengo elementuak jarriko dira:
 - a) Hauts balioanitzeko su itzalgailuak 21Ako eraginkortasuna duena.
 - b) CO₂ko itzalgailua 34Bko eraginkortasuna duena (koadro elektriko orokorraren alboan).
- Instalatzen diren suaren kontrako bitartekoen mantenimenduari dagokionez, 1942/1993 Errege Dekretuaren bitartez onartutako Suteen kontra babesteko Instalazioen arautegia (1993-12-14ko BOE) eta 1998ko apirilaren 16ko Agindua (1998-04-28ko 101 zk. BOE) bete behar dira.
- Kontagailu gelan Monedero Zerbitzuak etxeko kontagailua instalatuko da, gehienez 25 mm.koa. Irrati bidez irakurketa egin ahal izateko gailua eramango du. Ur hartune baimena eskatuko da.

BESTEAK

- Proiektuan adierazita dauden zehazpenak eta neurri zuzentzaileak nahitaez beteko behar dira, goian aipatutako jarraibideekin bat ez datozenean izan ezik.

HIRUGARRENA: Obrak amaitutakoan hurrengoak aurkeztuko dira:

- Gai den teknikariak zigitatutako amaiera ziurtagiria, burutu diren instalazioak aurkeztutako proiektuarekin bat datozela, eta ezarritako neurri zuzentzaileak bete direla adieraziz.
- Elektrizitateko instalazioaren Industria Ordezkaritzak emandako baimena.
- Ur hartunea izan ezker, ur edangarriko instalazioaren Industria Ordezkaritzak emandako baimena.
- Eusko Jurlaritzako "SUTEEN AURKAKO BABES INSTALAZIOA ZERBITZUAN JARTZEKO DOKUMENTUA".
- Ekoizleak eraikuntza eta eraipen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu behar dizkio Udalari.

LAUGARRENA: Aldez aurretik ondorengo Udal zerga ordainduko da: obra eta Instalazioen zerga.



Usurbilgo Udala



BOSGARRENA: Obra burutzeko zoru publikoan kontainerra jarri behar izanez gero, Udal baimena eskatuko da horretarako prestatuta dagoen inprimakia erabiliz. Hartuko den azalera eta, hasierako eta bukaerako egunak zehaztuko dira.

SEIGARRENA: Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:

- Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra
- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko
- Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberrako segurtasun neurriak beteko dira.
- Obrak lizentzi ematen den egunetik HILABETE baino lehen hasiko dira eta beste SEI HILABETEAN bukatuko dira.

ZAZPIGARRENA: Jardueraren errotulazioa euskaraz jarriko da, udal honek Euskararen erabilera normalizatzeko onartuta daukan udal ordenantzaren arabera; hala eskatuko balitz, udal honek horretarako beharrezko laguntza teknikoa eskainiko du.

ZORTZIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaitzari ematea.

4.- JOSE LUIS URKIA ZABALA ETA JUAN RAMON URKIA ZUMETA JAUNEI, TEILATUPEAN ETXEBIZITZA BAT MOLDATUZ GAZTELU BASERRIA ERABERRITZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Gai honen inguruan teknikoekin kontsultatu nahi denez, mahai gainean uztea erabaki da.

5.- 2014AN GIZARTE ZERBITZUEN ARLOAN IZENDATUTAKO DIRU-LAGUNTZEN ZURIKETA.

Espedienteak:

ACABE	(GZ.29/2014-0018)	BEGISARE	(GZ.29/2014-0120)
ADEMG	(GZ.29/2014-0022)	BIKARTE	(GZ.29/2014-0003)
AGIFES	(GZ.29/2014-0023)	GIP. ITXAROPEN TELEFONOA	(GZ.29/2014-0021)



Usurbilgo Udala



ALCER GIPUZKOA (GZ.29/2014-0016)

ATECE (GZ.29/2014-0019)

ATZEGI (GZ.29/2014-0017)

IZAN FUNDAZIOA (GZ.29/2014-0024)

ORTZADAR (GZ.29/2014-0025)

Ikusirik

2014ko otsailaren 3an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2014. urtean Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko diru-laguntzen oinarriak argitaratu ziren, eskaerak aurkezteko hogeit eguneko epea emanez, hau 2014ko otsailaren 26an bukatu zelarik. Epea amaitu ondoren, guztira 11 diru-laguntza eskaera jaso ziren.

Hori horrela, 2014ko martxoaren 20an egindako Osasun eta Gizarte Zerbitzuak batzorde informatiboan, 2014. urtean Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko diru-laguntzen banaketa proposamenaren berri eman zen.

Ondoren, 2014ko apirilaren 10eko bilkuran Diru laguntzen Batzorde Orokorrak, Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako teknikariaren txostena kontutan harturik, ebazpen-proposamena egin zuen eta interesatuei 10 eguneko epea eman zitzaizen alegazioak aurkezteko.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2014ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, 2014. urtean Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko diru-laguntzak onartu eta diru-laguntzaren lehen ordainketa (diru-laguntzaren erdia) egitea eta gainerako % 50a, emandako diru-laguntza justifikatu ondoren ordaintzea onartu zuen.

Laburtuz,

TALDEAREN IZENA	IZENDATUA	1GO ORDAINKETA %50	BIDERATU BEHARREKOA	OHARRAK
ACABE	820,25 €	410,12 €	410,13 €	--
ADENGI	492,15 €	246,07 €	246,08 €	--
AGIFES	853,06 €	426,53 €	426,53 €	--
ALCER GIPUZKOA	800,00 €	400,00 €	400,00 €	--
ATECE	754,63 €	377,31 €	377,32 €	--
ATZEGI	1.640,50 €	820,25 €	820,25 €	--
BEGISARE	820,25 €	410,12 €	410,13 €	--
GIPUZKOAKO ITXAR. TELEFONOA	885,87 €	442,93 €	206,70 €	Ekintza bat ez dute burutu
IZAN FUNDAZIOA	1.181,16 €	590,58 €	590,58 €	--



Usurbilgo Udala



ORTZADAR	754,63 €	377,31 €	377,32 €	--
BIKARTE	1.115,54 €	557,77 €	557,77 €	--

Eta kontutan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008-07-01).
- 2014an Gizarte Zerbitzuen Arloan egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO, 2014-02-03)

Hau guztia horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Honako eskatzaileei gizarte zerbitzuen arloko diru-laguntzaren bigarren zatia ordaintzea:

TALDEAREN IZENA	ORDAINKETA
ACABE	410,13 €
ADENGI	246,08 €
AGIFES	426,53 €
ALCER GIPUZKOA	400,00 €
ATECE	377,32 €
ATZEGI	820,25 €
BEGISARE	410,13 €
GIPUZKOAKO ITXAR. TELEFONOA	206,70 €
IZAN FUNDAZIOA	590,58 €
ORTZADAR	377,32 €
BIKARTE	557,77 €

Bigarrena : Gastua aurrekontu-partida honen kargura joango da: Diru-laguntza irekiak: Elkarteen asmoak: 1.8000.481.313.90.03.2014

Hirugarrena: Interesatuei akordioaren berri emango zaie.

Laugarrena: Kontu-hartzaitzari akordioaren berri emango zaio.



Usurbilgo Udala



6.- 2014AN KIROL ARLOAN IZENDATUTAKO DIRU-LAGUNTZEN ZURIKETA.

Ikusirik

2014ko otsailaren 3an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, kirol egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak argitaratu ziren, eskaerak aurkezteko hogeit hamar eguneko epea emanez. Epe horretan, guztira 13 diru-laguntza eskaera aurkeztu ziren.

Ondoren, 2013ko apirilaren 10eko bilkuran Diru-laguntzen Batzorde Orokorrak, kirol teknikariaren txostena kontutan harturik, ebazpen-proposamena egin zuen eta interesatuei 10 eguneko epea eman zitzaien alegazioak aurkezteko.

Maiatzaren 26an egindako Kirol Batzordean, 2014ko kirol egitasmoak burutzeko diru-laguntzen proposamenaren berri eman zen.

Aurreneko zatia eskatu zuten 13 kirol elkarteei %50a eman zitzaien; elkarte guztiek 2015ko urtarrilaren 31arteko epea zuten zuriketak egiteko.

Eskatutako modu egokian aurkeztutako gastu-zuritutakoaren arabera,

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza.(GAO, 2008/07/01).

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

Lehenengoa: 2014on Kirol egitasmoak garatzeko diru-laguntzaren oinarrien arabera, diru kopuru hauek onartzea:



Usurbilgo Udala



	Onartutako Diru-laguntza	Zuritu ondoren proposatutakoa		Emandako 1. zatia	2. zatia
Tximeleta	579,50	568,13	ez du dena ondo zuritu	289,75	278,38
Andatza M	3.733,07	3.733,07		1.866,54	1.866,53
Baxurde txiki	2.801,75	2.150,36	ez du dena ondo zuritu	1.400,85	749,51
Bazpi	2.339,31	1.762,83	ez du dena ondo zuritu	1.169,66	593,17
Beterri Sub	580,07	132,93	ez du dena ondo zuritu	290,04	-157,11
Usurbil FT	6.595,28	6.536,45	ez du dena ondo zuritu	3.297,64	3.238,81
Usurbil JC	7.964,74	7.220,05	ez du dena ondo zuritu	3.982,37	3.237,68
Makax	1.423,37	1.348,00	ez du dena ondo zuritu	711,69	636,31
Pagazpe	3.403,46	1.892,50	ez du dena ondo zuritu	1.701,73	190,77
Saiatuz	1.128,08		ez du ezer zuritu	564,04	-564,04
Usurbil KE	12.605,37	11.413,61	ez du dena ondo zuritu	5.916,26	5.497,35
Zubieta Lantzer	596,90	390,39	ez du dena ondo zuritu	298,45	91,94
Zubieta PT	1.249,09	1.249,09		624,53	624,57
	44.999,99	38.397,43		22.113,54	16.283,89

Bigarrena: Zerrendan azaltzen diren kirol elkarteei proposatutako ordainketak egitea.

Hirugarrena: Itzulketa egin behar dutenei, jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epean egin beharko dute itzulketa, Udalaren kontu zenbaki hauetakoren batean:

Kutxabank: 2095 5069 07 1060024832
Euskadiko Kutxa: 3035 0140 30 1400900017

Laugarrena: Gastua aurrekontu-partida honen kargura joango da:
1 4300 481 452 10 01 2014 (A 7/2014)

Bostgarrena: Interesatuei akordioaren berri ematea.

Seigarrena: Honen berri kontu-hartzaileari ematea.

7.- 2014AN KULTURA ARLOAN IZENDATUTAKO DIRU-LAGUNTZEN ZURIKETA.

Espedienteak: Antxomolantxa (KE.01/2014-0001)
Hitz Aho Udarregi ikastolako Guraso Elkarte (KE.01/2014-0060)
Organoaren lagunak (KE.01/2014-0058)
Bihurri Txiki Ludoteka (KE.01/2014-0062)
Santu Enea Elkarte (KE.01/2014-0070)
Nafartarrak (KE.01/2014-0083)
Akerra (KE.01/2014-0071)
San Praixku Guraso Elkarte (KE.01/2014-0063)
Zubieta Eskolako Guraso Elkarte (KE. 01/2014-0056)
Aitzaga Elkarte (KE.01/2014-0072)
Gure Esku Dago (KE.01/2014-0069)
Ziortza Gazte Elkarte (KE.01/2014-0061)



Usurbilgo Udala



Ikusirik

2014eko otsailaren 3an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, kultur egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak argitaratu ziren.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2014ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, 2014ko kultur egitasmoak burutzeko diru-laguntza kopuruak behin betikoz onartu zituen.

Orain, kultur elkarteek hainbat ekintza antolatzeko emandako diru-laguntza modu honetara justifikatu ditu:

Antxomolantxa

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
4. Kultura Ekintzak	2.025,00 €	1.518,75 €	Gastuak: 2.025,00 €	506,25 €
5. Ludoteka	675,00 €	506,25 €	Gastuak: 886,04 €	168,75 €
Guztira				675,00 €

Hitz Aho Udarregi ikastolako guraso elkarteak

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu edo itzuli beharrekoa
28. Guraso tailerren jarraipena	1.230,00 €	922,50 €	Gastuak: 2.440,00 € Soberakina: 1.210,00 €	307,50 €
30. Ikastolako aste kulturala	976,50 €	732,38 €	Gastuak: 2.186,69 € Soberakina: 1.210,19 €	244,13 €
31. Guraso eskola tailerrak	1.005,00 €	753,75 €	Gastua: 1.840,00 € Soberakina: 835,00€	251,25 €
32. Jostaliluen truke merkatua	135,00 €	101,25 €	Gastuak 30,54 € 28. ekintzako soberakina: 104,46	33,75 €
Guztira				836,63 €

Organoaren Lagunak

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
22. Donostia Musika Hamabostaldia organo Kontzertua	1.710,00 €	1.282,50 €	Gatuak: 1.834,67 € Soberakina: 124,67 €	427,50 €
23. Donostia Musika Hamabostaldea organo- bilkura	207,00 €	155,25 €	Gastuak: 210,38 € Soberakina: 3,38 €	51,75 €
24. Organo kontzertua	342,00 €	256,50 €	Gastuak: 335,85 € 22. ekintzako soberakina: 6,15	85,50 €
Guztira				564,75 €

Bihurri Txiki Ludoteka

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
36. Berririkitze Merendola	63,00 €	47,25 €	Gastuak: 76,69 € Soberakina: 13,69 €	15,75 €



Usurbilgo Udala



37. Ekitaldia	450,00 €	337,50 €	Gastuak: 217,80 € 36.38. eta 39. ekintza soberakina 232,20 €	112,50 €
38. Gabonetako Merendola	63,00 €	47,25 €	Gastuak: 217,80 € Soberakina: 154,80 €	15,75 €
39. Jostailuak eta materiala	135,00 €	101,25 €	Gastuak: 734,39 Soberakina: 599,39	33,75 €
Guztira				177,75 €

Santuenea Kultur Elkarte

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu edo itzuli beharrekoa
65. Danborrada	72,00 €	54,00 €	Gastuak:165,89 € Sarrerak: 69,05 € Guztira gastuak. 96,84 € Soberakina: 24,84 €	18,00 €
66. Pintura eta plastika tailerra	3.117,00 €	2.337,75 €	Gastuak:3.758,28 € Sarrerak: 640,00 € Guztira gastuak: 3.118,28 € Soberakina:1,28 €	451,50 €
67. Argazki lehiaketa	225,00 €	168,75 €	Gastuak: 225 €	56,25 €
68. Uretako jolasak kurtso bukaerako bazkaria	135,00 €	101,25 €	Gastuak: 180,00 € Soberakina: 45 €	33,75 €
69. Pailasoak	891,00 €	668,25 €	Gastuak:1.142,71 € Sarrerak: 150,00 € Guztira gastua: 992,71 € Soberakina: 101,71 €	222,75 €
70. Kantu afaria	405,00 €	303,75 €	Gastuak:303,23 € 65,66,68 eta 69. ekintzako soberakina: 101,77€ Guztira gastua: 405	101,25 €
71. Gaztetxoentzat makillaje tailerra	111,00 €	83,25 €	Ekintza egin da. Gastuak: 0 € 69 eta 74 ekintzako soberakina: 111 €	27,75 €
72. Yoga tailerra				
73. Sukaldaritza ikastaroa	210,00 €	157,50 €	EZ DUTE EGIN	-157,50 €
74. Gabonak	1.431,00 €	1.073,25 €	Gastuak: 1857,97 € Sarrerak: 108,84 € Guztira gastua: 1.749,13 €	357,25 €
Guztira				1.439,25 €

Nafartarrak

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu edo itzuli beharrekoa
90. Kantaldia: Iparraldeko kantariak	712,29 €	534,22 €	Gastuak: 786,50 € Soberakina:74,21 €	178,07 €



Usurbilgo Udala



91. Antzerkia	460,89 €	345,67 €	Gastuak: 605,00 € Soberakina: 144,11 €	115,22 €
92. Kantaldia: Sohütako ikastolaren alde	586,59 €	439,94 €	Gastuak: 500,00 € 90 eta 91 ekintzako soberakina: 86,59	146,65 €
93. Hitzaldia: Iparraldeko eta hegoaldeko gazteen artean	251,40 €	188,55 €	EZ DA EGIN	-188,55 €
Guztira				251,40 €

Akerra Gaztetxea

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
76. Kontzertua	1.620,00 €	1.215,00 €	Gastuak: 1.475 € 78. ekintzako soberakina 145€ Guztira gastua: 1.620 €	405,00 €
77. Mendi irteera	10,00 €	7,5 €	IRTEERA EZ DA EGIN PALA TXAPELKETA EGIN DUTE Gastua: 195,00 €	2,50 €
78. Tailerra	60,00 €	45,00 €	Gastuak: 363,42 € Soberakina: 303,42€	15,00 €
Guztira				422,50 €

San Praixku Guraso Elkarte

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu edo itzuli beharrekoa
40. Txokoak	2.100,00 €	1.575,00 €	Gastua: 2.339,21 € Sarrerak: 580,00 € Guztira gastua: 1.759,21 € 41.,43. eta 45. ekintzako soberakina 269,63 Guztira gastua: 2.028,84€ 2. zatia 2.028,84-1.575,00	453,84 €
41. Euskararen eguna	1.080,00 €	810,00 €	Gastuak: 1.155,00 € Soberakina: 75,00€	270,00 €
42. Hitzaldiak eta ikastaroak	450,00 €	337,50 €	Gastuak: 385,80 € 2. zatia 385,80-337,50	48,30 €
43. Santo Tomas eguna	90,00 €	67,50 €	Gastuak: 237,50 € Soberakina: 147,50 €	22,50 €
45. Eskola Txikien Eguna	2.700,00 €	2.025,00 €	Gastuak: 2.747,13 € Soberakina: 47,13 €	675,00 €
Guztira				1.469,64 €

Zubieta Eskolako Guraso Elkarte

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
18. Udako Txokoak	1.380,00 €	1.035,00 €	Gastuak: 5.626,56 €	345,00 €



Usurbilgo Udala



			Sarrerak: 3.700,00 €	
19. Aste Kulturala	900,00 €	675,00 €	Gastuak: 1.331,00 € soberakina: 431,00 €	225,00 €
20. Hitzaldiak	450,00 €	337,50 €	Gastuak: 360,00 € 19. ekintzako soberakina 90€	112,50 €
			Guztira	682,50 €

Aitzaga Elkarte

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
80. Liburu aurkezpena	90,00 €	67,50 €	Gastuak: 150,00 € Soberakina: 60,00 €	22,50 €
81. Argazki erakusketa	540,00 €	405,00 €	Gastuak: 441,23 € 79. ekintzako soberakina 98,77€	135,00 €
82. Hitzaldia: Herrialde Katalanak eta Euskal Herria	360,00 €	270,00 €	Gastuak: 359,75 €	90,00 €
83. Hitzaldia: Abertzaleen batasuna	270,00 €	202,50 €	Gastuak: 350,00 €	67,50 €
84. Hitzaldi: Estatu Krimena	270,00 €	202,50 €	Gastuak: 296,00 €	67,50 €
			Guztira	382,50 €

Gure Esku Dago

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
59. Baietz 400! aurkezpena	90,00 €	67,50 €	Gastuak: 122,55 € Soberakina: 32,55 €	22,50 €
60. Gure esku dago eguna	360,00 €	270,00€	Gastuak: 100,00 € 59 eta 62 ekintzako soberakina 260,00€ Guztira gastuak: 360	90,00 €
61. Lid dup	180,00 €	135,00 €	Gastuak: 0 € 62. eta 63 ekintzako soberakina 140,08€ 2. zatia 140,08-135	5,08 €
62. Lasarterekin elkarlan martxa	45,00 €	33,75 €	Gastuak: 316,76 € Soberakina: 271,76 €	11,25 €
63. Kontzertua	180,00 €	135,00 €	Gastuak: 275,77 € Soberakina: 95,77 €	45,00 €
64. Gazta zati bat				
			Guztira	173,83 €

Ziortza Gazte elkarte

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu edo itzuli beharrekoa
33. Urteko saioak	2.160,00 €	1.620,00 €	Gastuak: 1.071,930 € Sarrera: 176,70 € Guztira gastua: 895,23 € 34,35 ekintzako	495,51 €



Usurbilgo Udala



			soberakina:1.220,28 € Guztira gastua: 2,115,51€ 2. zatia. 2.115,51-1.620,00€	
34. Kanpaldia	6.000,00 €	4.500,00 €	Gastua: 16.566,80 € Sarrerak: 10.240,65 € Guztira gastuak:6.326,15 € Soberakina 326,15 €	1.500,00 €
35. Kabalgata 2015	2.070,00 €	1.552,50 €	Gastuak: 2.114,95 € Soberakina 44,95€	517,50 €
Guztira				2.513,01 €

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru laguntzak arautzeko udal ordenantzaren aldaketa (GAO, 2008/07/01).
- 2014n kultur egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO, 2014/02/03).
- Kontu hartzailearen ziurtagiria

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Honako eskatzaileari kultura arloko diru-laguntzaren bigarren zatia ordaintzea:

Eskatzailea	Ekintza	Ordainketa
Antxomolantxa	4,5	675,00 €
Hitz-Aho	28,30,31,32	836,63 €
Organoaren lagunak	22,23,24	564,75 €
Bihurri Txiki Ludotka	36,37,38,39	177,75 €
Santuenea Kultur Elkarte	65,66,67,68,69,70, 71,73,74	1.439,25 €
Nafartarrak	90,91,92,93	251,40 €
Akerra	76,77,78	422,50 €
San Praixku Guraso Elkarte	40,41,42,43,44,45	1.469,64 €
Zubieta Eskolako Guraso Elkarte	18,19,20	682,50 €
Aitzaga Elkarte	80,81,82,83,84	382,50 €
Gure Esku Dago	59,60,61,62,63,64	173,83 €
Ziortza	33,34,35	2.513,01 €

Bigarrena: Gastua aurrekontu-partida honen kargura joango da:
1.4000.481.451.10.03.2014 (A6/2014)

Hirugarrena: Interesatuari akordioaren berri emango zaio.

Laugarrena: Kontu-hartzaileari akordioaren berri emango zaio.



Usurbilgo Udala



8.- 2014AN NEKAZARITZA ARLOAN IZENDATUTAKO DIRU-LAGUNTZEN ZURIKETA.

Esp. Zenbakia: HZ.06 / 2014 - 0010

Tokiko Gobernu Batzarrak 2014ko urtarrilaren 28ko bilkuran, besteren artean 2014an nekazaritza eta ingurumen arloko egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak onartzea erabaki zuen.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2014ko ekainaren 10ean eginiko bilkuran, zera erabaki zuen hitzez hitz:

(...)

BIGARRENA: 2014an nekazaritza eta ingurumen arloko egitasmoak burutzeko ondoko diru-laguntzak onartzea:

Taldea	Ekintza	Babestutako aurrekontua	Diru-laguntza
Aranzadi Zientzia Elkarte	Biodibertsitatea lurraren arrasean: anfibio eta narrastiak, Usurbilgo aberastasun natural ezezaguna. Hitzaldiak	700,00 €	305,96 €
	Biodibertsitatea lurraren arrasean: anfibio eta narrastiak, Usurbilgo aberastasun natural ezezaguna. Erakusketa	800,00 €	
Azti fundazioa	World fish migration day ekintza internazionalaren barruan Orbediko arrainen pasabidera bisita eta umeentzako tailerrak	417,00 €	305,96 €
	Usurbilgo kultur etxean arrainen migrazioari eta erreken kontserbazioari buruzko hitzaldiak	555,00 €	
Alkartasuna. Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba Elkarte	Sagardoa eta sagar zukuaren ekoizpenari buruzko ikastaroa	563,60 €	338,16 €
	Plastikozko poltsak berrerabiliko diren ontziengatik ordezkatzeko proiektuaren azterketa eta abian jartzea	313,60 €	313,60 €
	Sagastien kimaketa eta zainketari buruzko ikastaroa	1013,60 €	608,16 €
	Nekazaritza biodinamikoa. ikastaroa	713,60 €	428,16 €
Gipuzkoa Zero Zabor	Aro berria. Hondakinen gain azken urteotan izandako gertakarien inguruko bideoa	1.400,00 €	700,00 €
GUZTIRA		6,476,40 €	3.000,00 €



Usurbilgo Udala



HIRUGARRENA: Oinarrietako 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, onartutako diru-laguntzen % 75a ordaintzeko agintzea Kontuhartzaitzari, 1.6100.480.442.10.01.2014 aurrekontu-partidatik:

Taldea	Ekintza	Diru-laguntzaren %75a
Aranzadi Zientzia Elkartea	Biodibertsitatea luraren arrasean: anfibio eta narrastiak, Usurbilgo aberastasun natural ezezaguna. Hitzaldiak	229,47 €
	Biodibertsitatea luraren arrasean: anfibio eta narrastiak, Usurbilgo aberastasun natural ezezaguna. Erakusketa	
Azti fundazioa	World fish migration day ekintza internazionalaren barruan Orbeldiko arrainen pasabidera bisita eta umeentzako tailerrak	229,47 €
	Usurbilgo kultur etxean arrainen migrazioari eta erreken kontserbazioari buruzko hitzaldiak	
Alkartasuna. Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba Elkartea	Sagardoa eta sagar zukuaren ekoizpenari buruzko ikastaroa	253,62 €
	Plastikozko poltsak berrerabiliko diren ontziengatik ordezkatzeko proiektuaren azterketa eta abian jartzea	235,20 €
	Sagastien kimaketa eta zainketari buruzko ikastaroa	456,12 €
	Nekazaritza biodinamikoa. ikastaroa	321,12 €
Gipuzkoa Zero Zabor	Aro berria. Hondakinen gaien azken urteotan izandako gertakarien inguruko bideoa	525,00 €
GUZTIRA		2.250,00 €

Onuradunei ondokoa gogoraraztea: gainerako %25a, eskaera egiteko aurkeztu zen aurrekontu osoari dagokion gastua, eta ez diru-laguntzaz ordaindutakoari bakarrik, justifikatu ondoren ordainduko dela. Eta kontuan izango dira, halaber, oinarrietako 12. artikuluan aipatzen diren aspektu guztiak.

Nekazaritza eta ingurumeneko diru-laguntzak zuritzeko urtarilaren 15ean amaitu zen.

Nekazaritza eta Ingurumen Teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegik, espedientea aztertu ostean 2015eko otsailaren 6an ondoko txostena eman du:

TXOSTENA TEKNIKOA
KUDEAKETA



Usurbilgo Udala



GAIA: 2014AN NEKAZARITZA ETA INGURUMEN EGITASMOAK BURUTZEKO DIRULAGUNTZA OINARRIAK. ZURIKETA

UDAL TEKNIKARIA: IBON GOIKOETXEA RETEGI

DATA: 2015-02-06

ESPEDIENTE ZKIA.: HZ.06 2014/00010

AURREKARIAK

- × 2013ko otsailaren 6an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, nekazaritza eta ingurumen egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak argitaratu ziren.
- × 2014ko otsailaren 3an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, nekazaritza eta ingurumen egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak argitaratu ziren.
- × 2014ko ekainak 10ean tokiko gobernu batzarrak behin betikoz onartu zuen:
 - Aranzadi Zientzia Elkarteari 305,96 €-ko dirulaguntza onartuz.
 - Azti fundazioari 305,96 €-ko dirulaguntza onartuz.
 - Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba Elkarteari guztira 1688,08 € onartuz.
 - Gipuzkoa Zero Zabor elkarteari 700 €-ko dirulaguntza onartuz.
- × Dirulaguntzak zuritzeko azken eguna 2015eko urtarrilaren 10a izango da.

AZTERKETA ETA PROPOSAMENA

- **Aranzadi Zientzia Elkarteari** onartutako dirulaguntza 2 ekintza gauzatzeko zen (Anfibio eta narrastien inguruko hitzaldia batetik, eta erakusketa bestetik). Ekintzak ez dira gauzatu eta Aranzadik uko egin dio dirulaguntza jasotzeari, hitzez hitz, 2015eko urtarrilak 13an jasotako mezu honetan jasota dagoen bezala.

“Usurbilgo udaleko ingurumen sailak 2014. urtean ateratako dirulaguntzan, Aranzadi Zientzia Elkarteari jasotako dirua bueltatu beharrean gaude ezin izan baiditugu hitzartutako ekintzak garaietan burutu. Gauzak honela dirulaguntza esleitu ostean Aranzadi Zientzia Elkarteari jasotako dirua (jaso beharrekoaren %75) bueltatzeko jarraitu beharreko pausuak jakin nahiko genituzke.”

- **Azti fundazioari** 305,96 € ko dirulaguntza onartu zitzaion. Ekintzak gauzatu ziren: maiatzak 21 eta 23an hitzaldiak izan ziren Sutegin eta 24, larunbatean berriz, orbeldiko presara irteera bat antolatu zen. Ez dute dirulaguntzaren inolako zuriketarik aurkeztu.
- **Alkartasuna** kooperatibari guztira, 1,688,08 €-ko dirulaguntza onartu zitzaion.



Usurbilgo Udala



- Sagardoa eta sagar zukuaren ekoizpenari buruzko ikastaroa. (338,16 €)
- Plastikozko poltsak berrerabiliko diren ontziengatik ordezkatzeko proiektuaren azterketa eta abian jartzea. (313,6 €)
- Sagastien kimaketa eta zainketari buruzko ikastaroa. (608,16 €)
- Nekazaritza biodinamikoa ikastaroa (428,16 €)

Dirulaguntzen zuriketa urtarrilaren 14an aurkeztu da eta:

- Sagastien kimaketarena egoki zuritu da.
 - Nekazaritza biodinamikoa egoki zuritu da.
 - Sagardoa eta sagar zukuaren ekoizpenari buruzko ikastaroa egoki zuritu da
 - Plastikozko poltsak berrerabiltzeko diren ontziengatik ordezkatzeko proiektuaren azterketa eta abian jartzea., 242 € soilik zuritu dituzte.
 - Nekazaritza biodinamikoa ikastaroa (428,16 €)
- **Gipuzkoa Zero Zaborri** 700 €-ko dirulaguntza onartu zitzaion Aro berri. Hondakinen gaian azken urteotan izandako gertakarien inguruko bideoa egiteagatik.

Dirulaguntzaren zuriketa urtarrilaren 12an aurkeztu da eta:

- Biodeoa oraindik argitaratu ezin izan bada ere, ekintza gauzatu da, eta egindako gastuek horrela ziurtatzen dute, honenbestez dirulaguntza egoki zuritu da.

Proposamena egin aurretik, aintzat hartu behar da, 2014ko dirulaguntzen deialdia orokorra izan zela. Alegia, nekazaritza eta ingurumeneko dirulaguntzekin batera kultura, kirola eta gizartekintzako dirulaguntzak ere aurkeztu zirlea, eta deialdia zurrizko epea gainontzeko dirulaguntzetan urtarrilak 15ean amaitzen zela. Horregatik, Usurbil Zero Zaborrek eta Alkartasuna kooperatibak urtarrilak, urrenez urren, urtarrilak 12an eta urtarrilak 14ean aurkeztu zituzten, ustez epe barruan aurkezten ari zirelakoan.

Ondorioz, ikusirik, zuriketak epez kanpo egin direla, eta oinarrietan zehaztutakoa jarraikiz KONTRAKO txostena igortzen dut, eta emandako dirulaguntza, 4 elkarteei, emandako dirulaguntza itzul araztea proposatzen dut.

Dena den, ikusita zuriketak egiterakoan, datekin izandako gaizki ulertua, aurkeztutako zuriketen baitan egingo litzatekeen ordainketa jasota geratzea komenigarria deritzot.



Usurbilgo Udala



Taldea	Ekintza	Babestutako aurrekontua	Diru-laguntza	Diru-laguntza ren %75	Zuriketaren arabera ordaindu beharrekoa
Aranzadi Zientzia Elkartea	Biodibertsitatea lurraren arrasean: anfibio eta narrastiak, Usurbilgo aberastasun natural ezezaguna. Hitzaldiak	700,00 €	305,96 €	229,47	Uko egin zaio diru-laguntzari
	Biodibertsitatea lurraren arrasean: anfibio eta narrastiak, Usurbilgo aberastasun natural ezezaguna. Erakusketa	800,00 €			
Azti fundazioa	World fish migration day ekintza internazionalaren barruan Orbeldiko arrainen pasabidera bisita eta umeentzako tailerrak	417,00 €	305,96 €	229,47	Ez du zuriketarik egin
	Usurbilgo kultur etxean arrainen migrazioari eta erreken kontserbazioari buruzko hitzaldiak	555,00 €			
Alkartasuna. Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba Elkartea	Sagardoa eta sagar zukuaren ekoizpenari buruzko ikastaroa	563,60 €	338,16 €	253,62	84,54
	Plastikozko poltsak berrerabiliko diren ontziengatik ordezkatzeko proiektuaren azterketa eta abian jartzea	313,60 €	313,60 €	235,20	6,8 (242 € soilik zuritu dituzte.
	Sagastien kimaketa eta zainketari buruzko ikastaroa	1013,60 €	608,16 €	456,12	152,04
	Nekazaritza biodinamikoa. ikastaroa	713,60 €	428,16 €	321,12	107,04
Gipuzkoa Zero Zabor	Aro berria. Hondakinen gaian azken urteotan izandako gertakarien inguruko bideoa	1.400,00 €	700,00 €	525,00	175,00
GUZTIRA		6,476,40 €	3.000,00 €		

Horrela jasota gera dadin

NEKAZARITZA ETA INGURUMEN TEKNIKARIA
Izta.: Ibon Goikoetxea Regeti

Gauzak horrela, Oinarrietako 9. artikuluan zehaztutakoaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:



Usurbilgo Udala



ERABAKIA

LEHENA: 2014an nekazaritza eta ingurumen arloko egitasmoak burutzeko diru-laguntzetarako oinarrietako xedapenak urratzeagatik, onartutako diru-laguntzen kontura aurreratutako % 75a udalari bueltatzeko agintzea ondokoei:

Taldea	Ekintza	Bueltatu beharreko dirua
Aranzadi Zientzia Elkarte	Biodibertsitatea lurraren arrasean: anfibio eta narrastiak, Usurbilgo aberastasun natural ezezaguna. Hitzaldiak	229,47 €
	Biodibertsitatea lurraren arrasean: anfibio eta narrastiak, Usurbilgo aberastasun natural ezezaguna. Erakusketa	
Azti fundazioa	World fish migration day ekintza internazionalaren barruan Orbeldiko arrainen pasabidera bisita eta umeentzako tailerrak	229,47 €
	Usurbilgo kultur etxean arrainen migrazioari eta erreken kontserbazioari buruzko hitzaldiak	

Diruaren itzulpena, jakinarazpena erabakiaren jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epean egin behar da Udalaren kontu zenbaki hauetakoren batean:

Kutxabank: 2095 5069 07 1060024832

Euskadiko Kutxa: 3035 0140 30 1400900017

BIGARRENA: 2014an nekazaritza eta ingurumen arloko egitasmoak burutzeko onartutako diru-laguntzen azken % 25a ordaintzeko agintzea Kontuhartzailetzari, 1.6100.480.442.10.01.2014 aurrekontu-partidatik:

Taldea	Ekintza	Diru-laguntzaren %25a
Alkartasuna. Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba Elkarte	Sagardoa eta sagar zukuaren ekoizpenari buruzko ikastaroa	84,54 €



Usurbilgo Udala



	Plastikozko poltsak berrerabiliko diren ontziengatik ordezkatzeko proiektuaren azterketa eta abian jartzea	6,80 €
	Sagastien kimaketa eta zainketari buruzko ikastaroa	152,04 €
	Nekazaritza biodinamikoa ikastaroa	107,04 €
Gipuzkoa Zero Zabor	Aro berria. Hondakinen gaien azken urteotan izandako gertakarien inguruko bideoa	175,00 €*
GUZTIRA		525,42 €

* Diru-laguntzaren 2. zatia ordaintzea erabakitzen da, baina ohartarazten zaie bideoaren ale bat behintzat martxoaren 16rako udalera ekarri beharko dutela.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta kontuhartzaitzari ematea.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, Alkate andreak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:00etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.